

URTEKO HERRA BIZITZA



SAGARDOARI BURUZKO ERAKUSKETA

Abenduaren 11an, Apeztegin, sagardoari buruzko erakusketak atek ireki zituen. Sagarra biltzeko tresnak edota sagardoa nola egiten den eta nola botilatzen den jakiteko ezinbesteko aukera.



"ASTIGARRAGAKO HIZKERA" LIBURUA

Joxe Jabier Furundarena euskal filologoak idatzi eta Luix Mari Zaldúa etnografoak editatutako "Astigarragako Hizkera" liburua aurkeztu zen. Bertan, gure herriko ahozko tradizioa eta ohiturak jasotzen dira.



IDIOA ARRIETARI OMENALDIA

Hiru urte Espainiako espetxeetan pasa ondoren, dagoeneko herrian dugu Idoia. Baina oraindik beste hainbat eta hainbat falta dira, horietatik gure herrikoak diren Juan Luis eta Petra. Agur bero bat biei hemendik eta laster arte !!



PATCHWORK Erakusketa

Aintzinako birziklaia teknikan oinarritutako eskulana da patchwork-a, ohial zati edo arratail ezberdinez baliatuz, egiten dena.

DEPRESIOAZ solasaldia

Artizar taldeak antolatutako hitzaldia.



Hil da D. FRANCISCO TAPIA apaiza

1999ko ekainaren 4an hil zen D. Francisco Tapia apaiza. Asteasun jaioa, Astigarragako parroko izan genuen 41 urtez.